

## PRENTSA OHARRA

# Teknikerrek 32 milioi euroko fakturazio errekorra lortu du I+Gri eta transferentzia teknologikoari esker

- *2023an, zentro teknologikoaren diru-sarreraren %50, besteak beste, aeronautikaren, hidrogenoaren edo osasunaren sektoreetako 200 enpresa baino gehiagorekin egindako kontratuetatik etorri zen*
- *Eusko Jaurlaritzaren, Estatuaren eta Europar Batasunaren lehiakortasun-programetan parte hartzeak sortu zuen diru-sarreraren beste erdia*
- *2021-2024 Plan Estrategikoak, GJHein lerrokatzeak, eta zentroko pertsonal-dearen talentuak eta konpromisoak modu jasangarrian gidatzen dute hazkunde hori*

[Eibarren, 2024ko uztailaren 23an] – Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide den **Tekniker** zentro teknologikoaren fakturazioak %18ko hazkundera izan zuen 2023an 2022arekiko, eta 31.942.975 milioi €ko fakturazio errekorra izan zuen I+Gn egindako lanari eta abangoardiako teknologia industria-ehunera zuzenean transferitzeari esker.

Diru-sarreraren %49,2 aeronautikaren, osasunaren edo hidrogenoaren sektoreetako 200 enpresa baino gehiagorekin egindako kontratuetatik etorri zen, ikerketaren eta balio handiko soluzioen garapenaren bidez, industria adimentsuago eta jasangarriago baterako bidea irekitzeko.

Zentroak material, prozesu, bitarteko eta sistema berriak integratuz heldu dio erronka horri, lehiakortasunean, jasangarritasunean eta ekonomia zirkularrean oinarritutako eredua errazteko. Horretarako, enpresekin lan egiten du, automatizazioan eta robotikan, sentzore eta eragingailuetan, gainazalen eta materialen diseinuan, osagai mekanikoen eta sistema tribologikoen hobekuntzan, sistema mekatronikoen garapenean, produkzio-prozesuen digitalizazioan eta metrologia industrialean soluzioak eskainiz.

Eusko Jaurlaritzaren (%24,5), Estatuaren (%5,4) eta Europar Batasunaren (% 17,1) programa lehiakorretan kokatutako I+G+B proiektuen parte-hartzeak eta lidergoak sortu zuten diru-sarreraren beste erdia.

## Apustu estrategikoa

2021-2024 plan estrategikoaren esparruan, Teknikerrek indartu egin zuen 2023an industria aeronautikoan eta antzeko esparruetan egindako apustua. Industria-jarduerako proiektuen %23 izan zen. Enpresa liderrekin lankidetzan aritzea funtsezkoa izan zen hegazkinen elektrifikazioa bultzatzeko, material berriak garatzeko edo kalitate-kontrolak in situ egiteko ekoizpen-baliabide berriak eta fabrikazio-tresna berriak prest jartzeko, hala nola laserra edo teknologia gehigarriak.

Aldi berean, hidrogenoaren balio-katearen faseetan espezializatuta egoteari esker (sorkuntzatik aplikaziora), zentro teknologikoa funtsezko bazkide bihurtu da industria-enpresek eta Europako administrazio nagusiek eskatutako trantsizio energetikoan.

Gainera, osasun-arloa izan zen Teknikerrek iaz egindako ahaleginen ardatzetako bat, ospitaleekin, start-up-ekin, gailu medikoak garatzen dituzten enprekin eta horien hornitzaileekin lankidetzan aritzearen ondorioz sektore horretatik jasotako diru-sarreraren %5ekin.

Zentro teknologikoak bere kudeaketa-sistemaren hainbat ziurtagiri ditu. Horien artean, gailu medikoak diseinatu eta garatzeko ISO 13485 ziurtagiria nabarmentzen da. Ziurtagiri horrek aukera ematen du aplikazio miniaturizatu eta optimizatuetan lan egiteko, bai hardware mailan, bai software mailan, bai taldeen eta pertsonen arteko elkarrekintza naturala ahalbidetuko duten errehabilitaziorako teknologia robotikoetan, bai pazienteen datuen kudeaketa sustatzeko soluzio digitaletan.

2023an, Teknikerrek 193 industria-proiektutan eta administrazioekiko 53 proiektutan hartu zuen parte. Ikerketa-jarduera handi horrek 5 patente berri sortu zituen, eta tribologian oinarritutako Europako start-up berri bat: [i-Tribomat](#).

## Konpromisoa eta talentua oinarrian

Tekniker diziplina aniztasunera, bikaintasun teknikora eta profesionalen konpromisora bideratutako erakundea da eta ezagutza transferitzeko eta, azken batean, mundu hobea eta atseginago batean laguntzeko talentua duten pertsonak ditu.

2023ko amaieran, kontratudun 279 pertsonak osatzen zuten zentroa. Era berean, praktika-prozesuetan zeuden 33 pertsonak zegokien GAL eta MAL egin zituzten unitate teknologikoetan, Teknikerren hezkuntza-lankidetzaren eta talentu-transferentziaren arloko helburuaren zati gisa.

Pertsonen %80k baino gehiagok unibertsitate-titulua du, eta %24k doktoretza. Hori funtsezko oinarria da espezializaziorako eta bikaintasun zientifikorako eta, gainera, harreman egonkorra ditu unibertsitateekin eta erreferentziazko zentroekin.

Aipagarriak dira segurtasun- eta osasun-arloan eta ingurumen-kudeaketari dagokionez egindako ahaleginak, oso emaitza onak baitituzte kudeaketa-adierazle nagusietan. Teknikerrek iaz berriro zituen 14001 eta 45001 ziurtagiriak, eta karbono-aztarnaren kalkulua egin zuen, MITECOren zigiluak lortuz 2019-2020-2021-2022 urteetarako.

Emisioak murrizteko konpromisoaren ondorioz, neurri kritikoak hartu zituen, hala nola eraikinean panel fotovoltaikoak jartzea kanpoko energiaren kontsumoa %7 murrizteko, eta mugikortasun-plana eguneratu zuen pertsonen artean garraio-praktika jasangarriagoak sustatzeko.

Gainera, zentro teknologikoak 2 milioi euro inguru inbertitu zituen iaz bere instalazioak eta ekipamendua hobetzeko. Nabarmenezkoa da, batetik, elektronika inprimatuko gune espezifiko berri baten aldeko apustua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaren duena eta, bestetik, tenperatura altuko korrosioarekiko erresistenteak diren estaldurak garatu eta karakterizatzeko laborategi bat ireki izana, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen Sailaren laguntzarekin.

Tekniker NBEren Munduko Itunari atxikita dago 2014tik, eta 2023an ekimen global horretan duen inplikazioa indartu zuen, eredu jasangarri sendo bat aukeratzeko. Erakundeak erantzukizun sozial korporatiboko bere ekintzen berri ematen du aldiro-aldiro, Global Compact erakundearen jarraibideen arabera eta, horrela, jarrera proaktiboa erakutsiz esparru horretan.

10 printzipioak eta 17 GJHak zentroaren 2021-2024 Plan Estrategikoan txertatuta daude, jarduketak gidatzeko eta antolaketarako funtsezko helburuak ezartzeko.

Azkenik, zentroak konpromiso sendoa du bere ingurunearekin, tokiko erakundeekin egindako dohaintzen eta elkarlanen bidez, dibertsitate funtzionala duten pertsonak garatzen eta integratzen laguntzen baitu, osasuna, hezkuntza eta jasangarritasuna sustatuz.

## Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago izateko:

**GUK** ▶ Unai Macias

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) | Tel. 690 212 067